

www.euskararenmaratoia.com

Euskararen VII. Maratoia martxan dagoneneko

□ Astearte arratsaldean egin zuten Euskararen Maratoiko aurtengo edizioko aurkezpena Villa Mirentxun. Zazpigarren maratoia izango da.



Herriko elkarteetako ordezkari ugari hurbildu ziren Euskararen VII. Maratoia aurkezteko eginiko prentsaurrekora.

Prest dago beraz, Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Batzordeak eta Ttakun Kultur Elkarteak elkarlanean antolatzen den Euskararen VII. Maratoia; eta bera aurkezteko prentsaurrekoa egin zuten asteartean. Ricardo Ortegak, Euskara Batzordeko lehendakariak eman zion hasiera Euskararen VII. Maratoia aurkezteko antolaturiko prentsaurrekoari.

Mahaian bere ondoan zituen kideak aurkeztu ondoren, Euskararen Maratoia, eta


eguneroko maratoia ere, ongi atera dadin, oso garrantzitsua dela denok sentitzea gurea euskara gogorarazi zuen. Honekin batera, Udala eta Ttakun oinarria badira ere, ez direla nahikoak azpimarratu zuten; zortzikotea, herriko ikastetxeak, euskaltegiak eta gainontzeko elkarteak ere ezinbestekoak dira.

M^a Jose Eizmendik hartu zuen hitza ondoren, eta honek Euskararen Maratoia-
ren helburuak eta oinarriak gogora ekarri zituen. Lehe-

nengo maratoiak lau helburu zituen: Lasarte-Oriako euskaldunok 40 ordu euskaraz etengabe egiteko gauza garena adieraztea; euskararen inguruan ahalik eta herriko jenderik gehiena biltzea; herriko euskaltzaleak elkarrengana biltzea, beren arteko tirabirik hautsiz eta maratoia Euskal Herri osora zabaltzea. Esan daiteke lehenengo hiru helburuak bete direla, beraz, edizio honetan "euskararen erabileraren normalizazioa sinbolizatuz, euskararekin

motibazioak sendotu nahi dira".

Amaiteko zortzikoteko bi kidek, Rebeka Garzesek eta Jokin Ayerregarayk hartu zuten hitza eta zertan dabil-tzan lanean azaldu zuten. Dagoeneko zenbait froga finkatuta daude eta beste batzuk puri-puritan daude. Froga gehienetan herritarren parte-hartzea ezinbestea dela gogora arazi zuten. Beraz, badakizue, parte hartzeko gogoarekin bazaudete, web orriari adi egon. •



Euskararen VII. Maratoiko zortzikoteko kideekin egon gara /4-5

GIZARTEA | 3

Energia berriztagarrien inguruan ikasteko Aste Berdea

KIROLA | 6

Eskola Kirolaren Festa handia larunbatean Michelingo kiroldegian

KIROLA | 6

Sega apustua egingo dute Buruntz-Azpiko bi bazkideek igande goizean

BELARTZA JATETXEA TABERNA

Larunbata gaua eta igandea itxita!

Asteburuko menua 11€

Eguneko menua
Ogitartekoak
Plater konbinatuak

Belartza poligonoa
Gurutzegi kalea 15. 4A Pabilioia
20018 Donostia
Tel.: 943 376082
www.webpractica.com

www.barandiaranlizeoa.com
barandi02@ikastola.net 943213355

HEZIKETA ZIKLOAK
Diseinu Grafikoa
Kirol Ekintzak

EUSKAL KIROLA

Kirolin
Aurrerako Eskola
0tik 3 urte arte

AZKEN PLAZAK
2008/2009 ikasturterako

- Orduetara: 7:30etik 19:00etara
- Urte osoan zabalik
- Jangela zerbitzu propioa
- Jolasleku kanpalkaldean
- 3 hilabetetarik 3 urtera arteko haurrentzat

Helbidea: Iñigo de Lolola Kalea, 17 baxua
20160 Lasarte Oria
Tfn: 943 36 85 61
E-mail: info@konfia.net

Neure kabuz



Ahazturaren politikaren ordez, oroitze, ezagutze eta zabaltzearen politikak hobe

Hots handirik atera gabe joan dira aste honetan preso politikoen lagun eta senideak Bruselara, tartean herriko senide eta lagunak.

Europako parlamentuan Frantzia eta Espainiako espetxeetan presoek bizi duten egoera eta honek eragindako istripu, hildako, gaixo, zigor luzatze... hau da: bizi duten egoeraren berri ematera joan dira. Eurodiputatuekin, flandestarrak eta kurduen ordezkariak bildu ondoren etorri dira tratatuaren testigu eta biktima hauek. Errealitate horren aurrean Europak ezin duela "itsu, mutu eta gor" geratu salatuta itzuli dira.

Bestalde, 36ko gerrako tratatuaren testigu eta biktimen istorioak ikusi berri ditugu oholatza gainean. Landaberriko antzerki eskolak emanaldi berezia egin du Andoainean. Garai hartan fusilatu, baztertu eta umillatu zituzten euskaldunen bizipenak hartu ditu oinarri.

Mezu zuzen hau jaso genuen emanaldian ikusleok: "indararen izan den ahazturaren politika baztertu beharra dago. Horren lekuan oroitu, ezagutu eta zabaldu egin behar dira hauek gehiago gerta ez daitezten". Lan politaren emaitza ikusi genuen. Erreza egin zitzaigun protagonisten senideen larruan sartzea. Egiakoa izan delako taldearen esan nahia, bidali digun mezua.

36ko gerraren garaian erabili zituzten errepresio moduak aldatu egin dira, baina gaur egun jazarpena, jarraipena eta espetxean ematen duten tratatuak orduan ematen zutenetik antza baduela esango nuke.

Ixiar Artega

Zorion-agurrak



Enaut

Zorionak eta 5muxu handi, aitona Juanjo, amona Mila eta famili guztia partetik



Aiora

Zorionak polita. Hamai-ka musu goxo zure familiaren partetik.



Naroa

Zorionak Kattagorri eta 3 muxu pottolo. Haizea, Andrea eta familiaren partetik.



Elur

Zorionak sorgina zure 2.urtebetetzean. Muxu handi bat etxekeon partetik.



Axier

Hamar muxu handi familiaren partetik.



Gael

Txokolatezko 8 muxu betetzerik hilabete bakoitzagatik izebita eta osabitoaren partetik



Leire

Zorionak. Muxu handi zure bizi lagunaren partetik.



Eider

Zorionak familiaren eta Aitorren partetik. Zorionak gurasoei ere 16. Urteurrenagatik



Xabier

Zorionak zure laugarren urtebetetzean. Muxuak aita eta amaren partetik.

Guardiak

Ostirala, 30

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Larunbata, 31

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Igandea, 1

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Astelehena, 2

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Asteartea, 3

Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

Asteazkena, 4

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Osteguna, 5

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 370000
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kiroldegia ... 943376182
Kulturetxea ... 943376181
Bakezko epaitegia ... 943371629
Zerbitzu Sozialak ... 943376179
Zentro Zibikoa ... 943363958
KIUB ... 943361605
Udal euskaltegia ... 943361621
Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

Azoka txikia

Eskaizta inmobiliarioak

• 60m karratuko lokal bat saldu edo alkatzen da Andatza plazan, pisu bat egiteko egokia.
Tel.: 943 363722 (Cecilia Arbizu)

• Seme-alabarik gabeko bikote batek pisu bat bilatzen du alokairuan Lasarte-Orian.
Tel.: 943 362205- 671 750393

• Lokala salgai (90m2). Iñigo de Loiola 12ean. Tel.: 635704811

• Etxebizitza salgai. Handia eta prestatua dago. Pablo Mutiozabal 2.ean. Tel.: 635704811

• Bi logetetako pisua salgai Urbarten. Tel.: 600 730512.

• Urbarten marrako garaje plaza bat alokatzen da.
Tel.: 943 363524.

Salerosketak

• Euskaltelen replika den karretretako bizikleta, Mountain Bike BH eta pasiorako bizikletak salgai. Hirurak egoera onean daude eta nahiko berriak dira.
Tel.: 647 404831.

• Kanpin-denda bat (karroa) salgai, Conver 13 modelo. 2 logeta eta abantzea. Tel.: 620 624243.

Oharretarako:

943 366858 • txintxarri@ttakun.com • Geltoki kalea 4

Jaiotzak

Aitana Garcia Morgado, maiatzaren 15ean.
Saray Batista Gomez, maiatzaren 13an.

Heriotzak

Candido Fernandez Permy, maiatzaren 29an 69 urte zituela.
Juan Urroz Gragirena, maiatzaren 24an 84 urte zituela.
Eulalia Garcia Muñoz, maiatzaren 23an 83 urte zituela.
Juan Lorenzo Amores, maiatzaren 20an 59 urte zituela.



Gazte Informazioarako Udala Bulegoa

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki Kalea 18 • Tel.: 943 376181

Arroilen jaitsiera ikastaroa

Ekinaren 7an eta 8an ECHO IBARRAN Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak antolatutako ikastaro hau

egiteko aukera izango duzu. 15 eta 21 urte bitarteko gazte federatuek %65eko beka eskuratutako ahal izango dute. Tel: 943 461440

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Txakun Kultur Elkarte. Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: S5513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Energia arduraz erabili, klimaren aldaketa gelditu

■ Lasarteoriatarrek energia berriztagarrien inguruan ikasteko aukera izango dute Aste Berdeko egitarauaren barruko ekitaldiei esker

TXINTXARRI

Aurtengo Aste Berdea maiatzaren 29an hasi da. Klima aldaketa, energia berriztagarrien sustapena eta eraginkortasuna izango dira gai nagusiak. Jardueraz betetako programazioa antolatuta dute Lasarte-Oriako Udalaren Ingurumeneko Departamentuan herritarrek klimaren aldaketaren eta energia berriztagarrien berri izan dezaten.

Datorren ekainaren 5ean Ingurumenaren Munduko eguna ospatuko da eta hori dela eta ospatzen da Aste Berdea. "Energia, erabili dezagun arduraz. Aldaketa klimatikoa gera dezakegu!" leloa da aurtentzango duguna.

Eguzki-etxola fotovoltaikoa bat jarri zen atzo osteguna Brigitarren plazan. Teilatuan lau eguzki plaka ditu, eta sortutako energia argi indar eraldatzeko sistemak jarrita ditu. Horrela etxolako bonbila eta panelak energia horrekin dabilza. Hila-betez egongo da energia berriei buruzko informazioz beteta den etxola autosufizientea Brigitarren plazan.

Bikote Solar SL enpresako Tirso Ortiz eta Unai Villena izan ziren atzo arratsaldean etxolari buruzko azalpenak ematen eta ondoren energia berriztagarrien inguruko hitzaldia eman zuten Villa Mirentxu-



Energia berriztagarrien berri ematen duen etxola jarri dute Brigitarren plazan. Teilatuan lau eguzki plaka ditu.

ko aretoan: gai asko jorratu zituzten, energiaren egoera munduan, energiaren iturri konbentzionalak eta erabilerak, ingurumen ondorio globalak eta lokalak, energiaren egoera Euskal Herri mailan, etorkizunerako itxaropenak eta energia-iturri berriztagarriak.

Ekainaren 4an energia aurrezteko gomendioak dakartzan 1.500 eskuorri eta kontsumo apaleko 750 bonbila banatuko dira azoka inguruetan. Bestalde haurrentzako komiki bat argitaratu da: aur-

tengo gai nagusiak modu didaktiko eta atseginean biltzen dituen komiki horren 1500 ale banatuko dira.

Agitarrek energia aurrezteko erabiltzen dituzten bideak erakusten ditu, horrela etxean eta familiarekin laguntzarekin ingurumenagatik bakoitzak bere ahalegin txikia egiteko.

Ingurumenaren munduko egunean, ekainaren 5ean, Euskadiko Zentro Meteorologiko zuzendaria den Margarita Martinek hitzaldia emango du aste berdearen programazioaren

barruan klimaren aldaketaren inguruan, Manuel Lekuona kulturetxean 19:00etan.

Ingurumeneko Departamentuaren lehenetsunetako bat hezkuntza da, horregatik, egun horretan bertan, txotxongilo antzezlan bat eskainiko zaie Landaberri eta Sasoetako lehen hezuntzako ikasleei. "Hura natura! Aire, lurra eta ura" izenburua duen lanak bizitzaren garapenean urak, hondakinen birziklapenak eta airearen kalitateak duten garrantzia azalduko die.

Herritarren karpa Atsobakarren bihar

Herritarren Partehartzeko Karpa larunbatean kalera aterako da beste behin. Larunbatean, bihar, goizeko 11:00etatik aurrera Atsobakarren izango dira Lasarte-Oriako Herritarren Plataformako kideak. "Gai askok kezkatzen gaituzte: babes ofizialeko etxebizitzak, erraustegia... Zuen iritzien, ideien, kezken, arazoan eta aholkuen berri izan nahi dugu eta guztia Udalarri helarazi", azaltzen dute ekimen honen antolatzaileek, "Lasarte-Oriako biztanleok gure auzoetako arazoak ezagutzen ditugu eta kasu egin eta entzungo digun Udala behar dugu. Herritarren partehartzea da bidea". LOHPko kideek Atsobakarrek auzokideez gain, gaintzako herritarrek Karpatik pasatzera gonbidatzen dituzte. •

Etterat elkarteko ordezkaritza Bruselasen

Lasarte-Oriako Etterat elkarteko hainbat herritar Bruselasera joango dira aste honetan "euskal errepresaliatu politikoei eta senitatekoek bizi duten errealitate krudelaren berri ematera", Etterateko prentsa bulegoak helarazi duenez.

Donostiako Hotel Amara Plazako autobus geltokitik euskal preso eta iheslari politikoen senitatekoek osatutako autobusa abiatu zen Bruselasera, "guk nahiz gure senideek jasaten ditugun eskubide urraketa eten-gabeen berri ematera europarlamentariei, juristei..." eta asteazken goizean, Bruselaseko "First Euroflat Hotel"-ean prentsaurrekoa eskainiko zuten. •

Argi Ikusik bigarren eskuko azokan bildutako dirua Minbiziaren Aurkako Elkarteari eman dio

Lasarte-Oriako Argi Ikusi Emakume taldeak aurreko asteburuan San Markoseko bigarren eskuko azokan bildutako dirua Euskadiko Minbiziaren Aurkako Elkarteari eman zion. Argi Ikusiko idazkaria den Erundina Gonzalezek eskaini zion azokan bildutako dirua Fernando Pesquerari.

Zentro Zibikoan elkartu ziren bi elkarteetako ordezkariak Argi Ikusiko kideekin batera eta gaiaren inguruko elkarrizketa izan zuten guztiek.

Eruk azaldu zuten horrela-ko zerbaite eginen duten lehen aldia izan dela. Ez omen zekiten bigarren eskuko azoka egiten zenik, baina aurtentzako horren berri izan eta parte



hartzeara animatu direla. Aho-batez erabaki zuten bildutako dirua Minbiziaren Aurkako Elkarteari uztea.

Fernando Pesquerak komentatu zuen orain arte ez dutela harremanik izan Lasarte-Oriarekin baina hemendik

aurrera, zentro zibikoa bitartekari dutela, harremana estutu daitekeela eta amankomuneko lanak antolatuta.

Gainera elkarteak egiten dituen lanak azaldu zituen eta noski eskerrak eman zizkien herriko emakumei.



Papiroflexia tailerra udal euskaltegian

Udal Euskaltegikoek ohiko liburua itxi eta paperari bese-telako erabilpen bat eman zioten asteazken goizean. Izan ere, Dori Corrales papiroflexiaren nondik-norakoak azaltzera joan baitzitzairen. Doriren laguntzarekin hiru figura desberdin osatu zituzten Udal Euskaltegiko ikasleek. Gero, lokarri bat hartu

eta bolatxoekin eskumuturreko dotorea egin zuten -baten batek Txintxarriko kazetariaren laguntza izan zuen-. Dori ia ahotsik gabe agertu zen, eztarriko minez, eta ahalegin handia egin behar izan zuen azalpenak emateko. "Modalitate berria sortzekotan egon gara: keinuflexia", esan zuen ikasle batek. •

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Igandea 1

11:00etan, Tolosa-Ostadar (Alebinen Txap. fasea), Tolosan.
17:00etan, Billabona-LOKE (I. Jubenila) Arratzainen (Billabona).

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 31

00:00, Aldaz-Zarautz Michelinen.

XXII. MOSSO MEMORIALA MICHELINEN

Larunbata, 31

15:00etan, Izkiñá-Jordi
15:50etan, Mostatxo-Izarra
16:40etan, FRuiz-Abend
17:30etan, Ainhoa-Buenetxea
18:20etan, C.Oria-Biyona

Igandea, 1

09:10etan, ISU-Donegal
10:00etan, M. Kotxeras-Oria Tx
10:50etan, Siglo XX-Epel

PILOTA

Larunbata 31

16:00etan, Alde Zaharra-Intza I (Eskuz binaka, alebinak) Loiolan.
16:00etan, Intza 2-Behar Zana (Eskuz binaka, alebinak) Loiolan.

PALA TXAPELKETA

Astehena 2

18:30etan, J.R. Alcibar, B. del Arco-I. Fernandez, J.A. Busto
19:15etan, E. Urdanpilleta, T. Urrezola-J. eta M. Begiristain
20:00etan, R. Felipe, A. Reyes-Iñaki eta Asier Iparragirre

Astearte 3

18:30etan, X. Garcia, A. Mundeate-J. Fraile, F. Nieto
19:15etan, I. Bardaji, I. Arluizaga-Jon eta Iñaki Lizaso
20:00etan, X. Otaegi, I. Uzquidun-M. Iparragirre, J. Prieto

Asteazkena 4

18:30etan, I. Iparragirre, A. Matxain-X. Arteaga, B. Esnaola
19:15etan, X. Etxezarreta, M. Bardaji-S. Martin, B. Odriozola
20:00etan, P. Kastro, I. Kastro-A. Zubizarreta, X. Eugui

Osteguna 5

18:30etan, I. Pagola, J. Ferreira-J.L. Iregi, J.P. Artetxe
19:15etan, X. Etxezarreta, M. Bardaji-S. Martin, B. Odriozola
20:00etan, I. Muxika, M. Muñoz-E. Jauregi, F. Ariztimuno

BOLO-JOKOA

Igandea 1

09:00etan, (Gipuzkoako txapelketa) Michelinen.

Eskola Kirolaren Festa larunbatean

Besteak beste, atletismoan, saskibaloian, futbolean eta tenisean aritzeko aukera izango dute Michelingo kiroldegira hurbiltzen diren haur guztiek

TXINTXARRI

Eskola Kirolaren, Lasarte-Orian, urte osoan zehar burutzen den programari amaiera emateko, larunbatean festa bat antolatuta dute Itakun Kultur Elkarteak, Landaberri eta Sasoetako ikasleek Udalarekin batera. Egun osoan zehar, kirol modalitate ezberdinetan aritzeko eta ezagutzeko aukera izango dute adin tarte guztietako haurrek Michelingo kiroldegian.

Maiatzean amaituko dira Eskola Kirol saioetako entrenamendu eta jardunaldiak eta aurreko urteetan bezala, jai giroan emango zaio amaiera. Eskola Kirolaren festa honean, kirol ezberdinak ezagutu eta kirola eginez ondo pasatzeko aukera izango dute nahi duten haur guztiek. Horiak dira hain zuzen ere antolatuak aipatu dituzten helburuak ikastetxe ezberdinetan diharduten haurrak elkar ezagutu eta euren arteko harremanak sendotzearekin batera. Denetarikoa aukera izango da gainera: Atletismoa, futbola, saskibaloia, kirol jolasa eta tenisean jardutekoa. Antolatuak diren haur guztiek.



Lasarte-Oria, Usurbil eta Urrietako atletak elkartuko dira larunbatean.

haur eta gaztetxo guztiek Eskola Kirolaren egunean parte hartu dezaten.

Atletismo sailean Buruntzaldeko atleten topaketa izango da gainera, Usurbil eta Urrietako kirolari gaztetxoak elkartuko baitira Lasarte oriarrekin batera.

Guztira urtean zehar 300 bat haur aritzen dira Eskola Kirolaren. Horretarako 30en

bat entrenatzaileen laguntza dute. Hurrengo urtera begira eskola kirol programa egokia moldatzeko eta antolaketa errazteko, ekainaren 9tik 13ra bitartean ikastetxeetan aurreinskripzioa egiteko aukera izango da. Hurrengo urtean ikasle bakoitzak zein kirol egin nahi duen jakinaraziko du ahalik eta zerbiztu onena eskaintzeko.

ESKOLA KIROLAREN FESTA MICHELINEN

Maiatzaren 31, larunbata. Michelin-go kiroldegian

EGITARAUA:

Atletismoa:
10:00etatik 11:30etara
Benjaminak: LH 3 eta 4 mailatako haurrak
Lasarte-Oria, Usurbil eta Urrietako ikasleak izango dira.

Futbola:
10.00-11.00
Benjaminak (LH 3 eta 4)
11.15-12.30
Alebinak: (LH 5 eta 6)

Saskibaloia:
10.00-11.00
Alebinak (LH 5 eta 6)
11.00-12.00


Infantilak
Juniorrak:
Kirol-jolasa:
11.30-12.30
Aurrebenjaminak (LH 1 eta 2)

Tenisa:
14.00-18.00
Benjaminak (LH 3 eta 4).

Kiroletako oharrak

Pilates

Udal Kiroldegiko arduradunek pilateseko ordutegiak ekainean aldaketa txiki bat izango duela jakinarazi nahi dute. Astehenen eta asteazkenean goizeko 9:00etatik 10:00etara eta astearte eta ostegunetan arratsaldean 18:00etatik 19:00etara.



Alebinentzako deialdia

"Kirola zure herrian egin" lelopean, Ostadar K.F.k hurrengo denboraldian alebinen taldean jokatu nahi duten haurrentzat aurre inskripzioa ireki du. 1997an jaiotakoek eta Lasarte-Orian bizi direnek, herrian ikasi edo ez, soilik eman dezakete izena. Izen ematea 19:00etatik 20:00ak bitartean Ostadarreko bulegoan, Geltoki 2an, eman daiteke; gaur da

azken eguna. Jokalari kopurua mugatua denez, Ostadarrek ekainean entrenamenduetarako deialdia egingo du.

Ostadar K.F.k egoitza berria izango du

Ostadar Kirol Fundazioa egoitzaz aldatzen da astehenean. Geltoki 2ko lokala utzi eta ekainaren 2tik aurrera geltoki 25.zenbakian izango dira. Beraz, astehenetik aurrera Michelingo kirol-gunetik gertu, Iparragirre zapata denda zen lokalean, izango dira aurreantzean.

Ostadarreko entrenamenduetarako deialdia

Hurrengo denboraldia prestatzeko Ostadarrek entrenamenduak prestatu ditu. Deialdiak datak ondorengoak dira: alebinentzat (1997) eta infantil txikientzat (1996) ekainaren 4 eta 6an, 18:00etatik 19:00etara; ohorezko infantilak, berriz, ekainaren 6an eta 9an, 18:00etan entrenatuko du. Entrenamendu guztiak Michelingo futbol zelaietan izango dira.

Sega apustua Burutz-Azpien artean



Urtarrilaren 2an, apustua zehaztu zuten egunean.

Buruntz-Azpi Elkarteak bi bazkidek sega lehiaketa egingo dute ekainaren 1ean, igandean, goizeko 11:30etan, Kaxkarro ikastetxe ohiaren ondoko zelaietan. Igande goizeko protagonista Mikel Berasategi, Berrobikoa izatez eta Andoni Monge Basaundi Bailarokoa izango dira. Hala eta guztiz ere, ez dira bakarrik egongo, segalari bakoitzak 6 lagun lanean izango

ditu eta: lau lagunek moztutako belarra bilduko dute, zorrotzaile bat eta epaile bat. Herriko trikitilariak eta txalapartariak girotuko dute proba.

Bi segalariak ordu betez belarra mozten arituko dira eta ondoren, ordu erdi baino gehiago izango dute moztutakoa pisatzeko. Apustua belar gehien mozten duenak irabaziko du.

Egunero

Erakusketa

SAHARAR KANPAMENDUETAKO ARGAZKIAK ikusgai Sahararen lagunak elkarrean eskutik. Jalgin, egun osoan.



Ostirala, 30

Bideoforuma

"AMAR PELIGROSAMENTE" izango da emango duten filma eta gonbidatua oraingo honetan Jose Antonio Muñoz, misio humanitarioetako kooperantea. Emakumeen Zentro Zibikoan, 17:00etan.

Larunbata, 31

Antzerkia

JOANEN ILARGIA haurrentzako antzerkia Teatre Nu taldearekin. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan. Sarrera 3 euro. EUSKARAZ

Ostirala, 6

Bakarrizketa

KIKE BIGURIEN eskutik bakarrizketa. Paramount Comedy eta Club de la comediako kidea da Kike. Udaberri tabernan, 22:00etan.



Ttakuntronik zirkuituak urtea bete du

Ttakuntronik zirkuituaren 1. urteurrena

Grassmann, cool beats. Ttakuntronik zirkuituaren barne. Naiban tabernan, 23:00etatik 03:00etara.

DJ Iñarra, dancing and curving. Ttakuntronik zirkuituaren barne. Siglo XX tabernan, 00:00etatik 03:00etara.

Jahinity Sound, reggae. Ttakuntronik zirkuituaren barruan. Obelix tabernan, 22:30etik 01:30era.

DJ Budin (breakjazzfunk), Ttakuntronik zirkuituaren barne. Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan.

LARUNBATEAN, 22:30ETIK AUERRERA
HERRIKO HAINBAT TABERNETAN

ZABALETAKO JAIAK

Ostirala 30

17:30etatik aurrera, haurren merienda, antzerkia eta opariak
19:30ean, auzoko triki-joleak
20:00etan, Lasarteko batukada
20:00etan, "Teresa sorginaren" jaitsiera
22:30ean, Alboka eta Xumela abesbatzen emanaldia
23:30ean, dantza garaikidea
24:00etan, Lauburu taldea.

Larunbata 31

9:00etan, diana
11:30ean, J.M. Aranzadiren oroimenez 1. eskoba txapelketa
12:00-14:00, puzgarriak
16:00-18:00, puzgarriak
18:00etan, Hipo eta Tomas pailazoak
19:00etan, herri kirolak haurrentzat
23:00etan, bertso saioa: Gaztelumendi anaiak, Amaia Agirre eta Ane Labaka. Gai-jartzailea: Andoni Otamendi
24:00etan, Gaueko itzalak eta Odolaren mintzoa

Igandea 1 (baserritarrez jantzita)

9:00etan, diana eta auzo garbiketako txapelketa
11:00etan, Landaberri ikastolako dantza saioa
12:00etan, Idi proba
13:00etan, proba mixtoa
14:30ean, herri bazkaria
16:00etan, Joxe Migel Aranzadiri omenaldia
16:15etan, Lauburu taldea
18:00etan, toka txapelketa
19:00etan, TXAN magoa
20:00etan, Lasarteko batukada
20:30ean, Teresa Sorginari agurra eta jaien amaiera

Eskutitzak

Alkorta anderearen 'hahitako alkatsen' inguruan

Hezeak eta iharrak nahastea ez da ona izaten, Alkorta anderea. Eta zure ohitura da hori egitea. Lasarte-Oriako BOEn inguruan nahi dezun demagogia guztia egiten saiatu zaitezke, baina ekintzek ere abala ematen digute. Datorren astean onartuko dugu Loidi-Barreneko lehen 100 BOEn erakuntza esleitzeko baldintza-argiria, ez dakigu EAJen botoarekin edo ez. Joan den astean Vaguada Goiegi eremuko Birpartzelazio Batzordea osatu zen. Horrek suposatuko du urtea amaitu baino lehen hasiko direla erakitzen bertako 202 etxebizitza babestuek. Eta badakigu Zabaleta Berriko promotora gauza bera egiteko asmoa duela datorren astean, beraz, beste 151 BOEn erakuntzaren hasieraz hitz egiten ari gara.

Momentu honetan Loidi-Barrenen erakitzen ari diren etxebizitzek Lasarte-Oriak dituen beharrei erantzuten diete, izan ere, aukera ematen dute antolamenduz kanpo geratu diren bizilagun eta saltokiak berriro ere kokatzeko eta Sasoeta eta Loidi-Barren eremueta-ko lanak garaiz amaitzea ahalbidetuko dute. Agian arazoa izango da ez duzula denborarik Arau Subsidiarioak aztertzeke, gure udalerraren gestio urbanistikorako sistemak zehazten dituztenak.

Haurreskolaren kalakarekin zator berriro ere. Eskerrak ez genuela erabaki Eusko Jaurlaritzaren menpe dagoen partzuergo horretan sartzea. Oraintxe jakin izan dugu hala izan balitz, bi eta hiru urteko gelak kenduko zituztela Udalarekin eta erabiltzaileekin kontsultatu gabe. Horixe da beste leku batzuetan egiten ari direna beren zentroen arazoak konpontzeko, eskola mapa ez betetzen eta zero eta hiru urte arteko heziketa osotasunezko proiektu bat bezala ulertzen ez dutela erakusten, baizik eta haurtzaindegi soil bat bezala.

Bestalde, jlotsarik ez al duzu gure udalerriko euskararen inguruan hitz egiteko? Oraindik ez duzu Udal honekin bilerarik mantendu Foru Aldundiko Euskara zuzendari bezala, lan proposamenak egiteko. Gainera, gezurra esan zenuen, edo nahiago baduzu, ez zenuen egia esan, izan ere, aurrekontu Plenoan aipatu zenuen dagoeneko bildu zirela. Esan ieza-zuko orduan noiz eta Udaletxe honetako norekin bildu zinen Lasarte-Oriako politika linguistikorekin inguruan hitz egiteko. Inorekin! Lasarte-Oriako euskarak horrenbeste arduratzen bazaitu, zergatik, pasa den denbora guztia pasata, ez diozue ekarpenik egin Biziberritzeke Planari? Legitimitatea falta zaizue, eta udalerriri honengatik lan egitea.

Iñaki Mujika
PSE-EEko bozeramailea

Oharrak

EHNaren tramitazioa

Ezker abertzalea zinegotzi taldeak jakin arazten du, maiatzaren 31n udaletxe ondoan Santa Ana kalean dagoen portaleko azken pisuan (botikaren atzean), egongo garela 11:30ean 13:30etik. EHNaren tramitazioa eskaerei erantzuna emango diogu eta udaleko beste edozein arazoren aholkularitza lana ere bai.

XXXI Mus Txapelketako finaleko afaria

Lasartearra elkarrekin ekainaren 7an izango den XXXI. Mus Txapelketako finaleko afarirako izena emateko epea zabalik dagoela jakinarazi nahi die bazkide eta lagunei. Interesatuak, elkartetik pasa behar dute. Izena emateko azken eguna ekainaren 4a da.

Etzeraten elkarteratzea

Hileko azken ostiralero bezala, Lasarte-Oriako Etzeratek kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen

aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Larrain dantza ikasteko

Herriko festak aitzaki, Xiberuko zenbait polka, eta Larraint dantza ikasteko saioak antolatuta dira. Edonork hartu dezake parte. Entsaioak Erketzen lokalean egingo dira ekainak 6, 13, 20 eta 27an. Izen emateak Ttakunen (943 371448).

Udako Txokotan begirale

Ttakunek antolatzen dituen Udako Txokotan begirale izateko aukera dago. Txokoa uztailan eta abuztuan dira, astean zehar eta goizetan. Interesatuak mezu bat bidali dezakete aisia@ttakun.com helbidera, 943 371448 telefonora deitu edo Ttakunetik pasa (Geltoki kalea 4).

Glotodidaktika ikastaroa

Euskara irakaslea izan nahi dutenentzat, Antiguako AEK euskaltegian glotodidaktika

ikastaroa antolatu dute. Euskara irakasteko oinarriko prestakuntza emango da ekainaren 30etik uztailaren 24ra bitartean. Informazio gehiago 943327172 telefonoan. Ikastaroan aprobetxamendu ona izanez gero, eta homologazioarako baldintzak betez gero, AEKren lan poltsan izateko aukera izango dute.

Gizarte Zerbitzuen Departamentuaren oharra

Departamentu honek gizarte-ogizatearen alorrean lanean diharduten erakunde eta elkarte guztiei jakinarazten die zabalik dagoela Departamentu honek eman ohi dituen dirulaguntzak eskuratzeko eskariak aurkezteko epea. Horretarako eskariak Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira (9:00etatik 13:00etara), eskutitako agiriarekin batera (Memoria, Gastuen Justifikazioa eta Jardueren Proposamena). Maiatzaren 5etik 30era aurkeztu daitezke eskariak.

Maria Auxiliadora elkarteraren irteera

Ekainaren 15erako antolatu du Lasarte-Oriako Maria Auxiliadora elkarrekin irteera. Lehenengo Segurara joango dira, gero Zumarragako Antigua ermita ikusiko dute eta ondoren Oñatin bisita gidatua izango dute. Arantzazun bazkaldu eta gero, Arrikruz koba bisitatuko dute arratsaldean. Izena eman nahi duenak ondoko bi telefono hauerara deitu behar du: 943 363675 eta 943 360042.

Usurbilgo Lanbide Eskola

Gure eskolan aurrematrikula egiteko epea ekainaren 2tik 13ra irekita izango da.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe

Antzerki Astea ekainaren 2tik 14ra

- Landaberri Antzerki Eskolak aurten sortutako lanak Kultur Etxean eskainiko ditu
- 20 lanetik gora prestatu dituzte eta 200 lagunetik gora jarriko dira jendaurrean

Ekainaren 2tik 14ra bitartean Lasarte-Oriako antzerki sorkuntza maila altua erakutsiko da: 20 lanetik gora prestatu dituzte Landaberri Antzerki

Eskolakoek eta bi astetan eskainiko dira, guztiak doan, Manuel Lekuona Kultur Etxeko oholtzan, goizetan ikastetxeetakoentzat eta arratsalde-gauean

antzerki zaleentzat. Guztira 200 lagun baino gehiago igoko dira oholtzara eta, beraz, ez da dudarik, antzerkia sendo eta indartsu dagoela herrian.

Jon ALTUNA-ITZIAR CARRASCO

Landaberri Antzerki Eskolako ordezkari eta irakasleek ostegun goizean aurkeztu zuten ekainaren 2tik 14ra luzatuko den Lasarte Oriako 6. Antzerki astea. Joxe Mari Agirretxek seigarren urtez segidan antolatzen den egitarauaren sendotasuna nabarmendu zuen: astea deitzen bazaio ere, bi aste luzatuko da, urtetik urtera eskolan gero eta talde gehiago ari direlako. Aurten hogeitalek hartuko du parte, denak herrikoak eta guztira 200 lagunetik gora jarriko dira jendaurrean. Agirretxek egitasmoaren inguruko hiru ideia edo helburu azpimarratu zituen. Batetik, antzerkiak herrian izan duen hazkundera eta hartu duen maila bikaina, bestetik herriko talde ezberdinen elkarlana zein lagungarri den euskaraz bizitzeko eta azkenik, Euskal Herriko beste Antzerki Eskola batzuekin elkartzeko asmoa, antzeko arazoei aurre egiteko.

Manuel Lekuona Kultur Etxean eskainiko dira aurten Landaberri Antzerki Eskolak prestatu dituen lanak. Produktio handia da, talde ezberdinek 21 lan prestatu dituzte, denetarikoa. Haurren taldeek prestatutakoak bi aldiz eskainiko dira, goizetan, ikasleentzat eta arratsaldeko 7etan nahi dutenentzat. Helduen taldeek gauean eskainiko dituzte euren emanaldiak. Batetik ekainaren 6an, ostirala, 22.30ean "Garraxi Ixilak" eskainiko du Joserra Fachadoren taldeak: aurreko astean Andoainen burututako aurre-estrenaldi arrakastatsuen ondoren gogoz claude Lasartera ekartzeko. Zarautzen eta Zaldibian egiteko eskaintza ere jaso dute. Junkal Perezek eman zuen "gira"ren berria, aurten prestatutako antzezlan Lasartetik kanpo ere eskainiko dela, alegia. Andoaingo saioarekin pozik daudela aipatu zuen.

Helduen beste antzerki taldeak ekainaren 13an emango du 22.30ean Klik-on, izeneko lana, sexuari buruzkoa eta Mertzxe Rodriguezen zuzendaria adierazi zuenez, bi erronbotako lana, 16 urte gorakoentzat.

Antzerki asteari Dantza Garaikidea eta batukadarekin emango zaio amaiera, ekainaren 14an, 20.00ean hasita burutuko den ekitaldiarekin.



Landaberri Antzerki Eskola eta oro har antzerkia sendo da Lasarte-Orian. Aurkezpenean, Eskolako ordezkari, ikasle eta irakasleak parte hartu zuten.

Hasteko DBHko taldeak prestatutako bi dantza saio eskainiko dira eta ondoren helduen bi taldeek prestatutakoak: "Euskal Oihartzuna. Sua eta lurra." eta "keinuka". Maider Oizartabal irakasleak aipatu zuenez aurtengo erronka alde fisikoa eta teknikoa lantzea izan da. Hilaren 14an ikusiko da emaitza. Hurrengo urteetarako beste asmo baten berri ere eman zuen, txikitik euskal dantza egitetik geroago garaikidea egitera dagoen etenaldia gainditzeko euskal dantza eta garaikidea uztartzeko asmoa.

Ekitaldi berezia izango da, antzerki astea amaitzeko, dantza garaikideko hiru taldeek batera dantzatuko baitute, batukadarekin batera. Aitor Uriarte Ttakuneko ordezkariak aipatu zuenez, duela urte bete ikastaro formatuarekin jaio zen batukadaren egitasmoa, baina helburua talde iraunkor bat sortu eta

mantentzea da.

Joxe Mari Agirretxek uste du Lasarte-Orian diren baliabideei etekina ater behar zaiela eta denak bat eginik elkarlanean aritu. Bere ustez herrian irakasle onak dira, besteak beste Mertzxe, Maider eta Joserra aipatu zituen... eta aukera ona izango da Ttakunek irekiko duen gazte lokala ere, dantza eta antzerkia

egiteko esparru aproposa izan daiteke eta.

Landaberri Eskolako ordezkariak antzerkiak herrian hartu duen maila eta dimentsioa gorapatu zituen aurkezpenean, batetik kopuru aldetik baina baita kalitateari dagokionez ere, "urteetako esperientziaren ondorio". Adibide gisa Andoainen Landaberri Antzerki Esko-

la estreinatu zuen Garraxi Ixilak emanaldia jarri zuen: "ikusle batzuek ez zekiten esaten antzezleak amateurrak ala profesionalak ziren.

Bestalde, Agirretxeren ustez beste funtzio garrantzitsu bat ere betetzen du Eskolako herriko beste talde batzuekin elkarlanean. Interesgarria dira Lasarte-Orian euskaraz bizitzeko eta jarduteko sortzen ari diren esparruak: "Herriko talde desberdinen arteko elkarlana lantzen ari gara, diziplina desberdinak uztartuz: bertsuak, batukada, antzerkia, dantza garaikidea..."

Azkenik Euskal Herriko Antzerkizale Elkartearen sortzeko asmoaren garrantzia azpimarratu zuen: antzerki eskola desberdinek antzeko arazoak dituzte eta harremanetan jarri dira, arazo amankomunei aurre egiteko: zirkuitu baten beharra, euskarazko testuak lortzeko zailtasunak, irakasle prestuen beharra... Bere ustez, Lasarte-Orian antzerkiak hazkundera handia izan du oso denbora gutxian, Euskal Herri mailan gauza bera gerta daiteke eta beraz guztiak koordinatuta hobeto funtzionatuko dute. •



"Garraxi ixilak", 36ko gerrari buruz, eta "klik-On" 16 urtetik gorakoentzat, helduen lanak. "Euskal Oihartzuna. Sua eta lurra." eta "keinuka", dantza garaikideko bi taldeenak